PROGRAMAREN DATU OROKORRAK

Departamentua: 04 - GOBERNANTZA DEPARTAMENTUA
Atala: 0430 - Gobernu Oneko eta Berrikuntza Politiko-sozialeko Zuzendaritza Nagusia
Programa: 300 - Gobernu Ona eta Herritarren Partaidetza
Funtzionala: 924 - Herritarren parte hartzea

Programa mota:

Finalista

Misioa:

Gipuzkoako Foru Aldundiaren Gobernu Onaren eta Herritarren Partaidetzaren Programaren helburua gobernantza publiko demokratikoa, gardena eta osoa bermatzea da, aldi berean, herritarrek lurralde historikoko gai publikoetan parte hartzeko duten eskubidea benetan gauzatzen dela bermatuz. Bere jardunak foru-administrazioaren eta gizarte zibilaren arteko arrakala jorratzen du, eta parte-hartze osoa, bidezkoa eta inklusiboa mugatzen duten desberdintasunak ere.Programak udalekin, elkarteekin, herritarrekin eta foru sektore publikoarekin lankidetzan lan egiten du, politika publikoen diseinuan, garapenean eta ebaluazioan parte hartzea sustatzeko. Halaber, baliabide eta tresna partekatuak eraikitzen ditu, udalerriei laguntza teknikoa ematen die, parte hartzeko egitura egonkorrak kudeatzen ditu eta Gobernu Irekia, gardentasuna eta zuzentasun instituzionaleko sistema bultzatzen ditu.Emakumeen eta gizonen berdintasunari dagokionez, parte hartzeko guneetan emakumeen presentzia handia den arren, boterean eta eraginean desberdintasunak daude oraindik. Emakumeek gutxiago parte hartzen dute eztabaida-prozesuetan, presentzia txikiagoa dute herritar-erakundeen lehendakaritzetan, eta informazio publikoko eskaeren laurdena baino ez dute ordezkatzen. Gainera, ikuspegi feministak presentzia oso mugatua du elkarteen sarean.Horregatik, programak genero-ikuspegia txertatzen du, bazterkeria-ardatzei erreparatzen die eta hizkuntza-berdintasuna sustatzen du.

Egoeraren diagnostikoa:

GFAk Partaidetzaren aldeko apustua 2010ean hasi zuen, Herritarren Partaidetzari buruzko uztailaren 8ko 1/2010 Foru Araua onartu eta ondoren Herritarren Partaidetzarako Zuzendaritza sortu zenean. Araudiari dagokionez, beste mugarri garrantzitsu bat izan zen azaroaren 12ko 5/2018 Foru Araua onartu izana, aurrekoaren erreforma ekarri zuena (1/2010 Foru Araua).
Herritarren Partaidetzarako lehenengo Programa, Orain Zu izenekoa. Herritarren Partaidetza 2015-2019 legegintzaldian sortu zen, herritarrekiko harreman irekia sendotzeko eta parte hartzeko eta komunikatzeko bide berriak irekitzeko, lau jarduera-ardatzen bidez: indartzea, hedatzea, erraztea eta zabaltzea.
Elkarlaneko gobernantzaren eredua sendotzen jarraitu ahal izateko, lankidetza eta baterako sorkuntza politika publikoen garapen-eremu guztietara eraman ahal izateko, beharrezkoa da zuzendaritza politikoaren eta GFAko lantalde teknikoen arteko lankidetza sustatzea, antolatutako gizartearekin eta gainerako erakunde-sistemarekin. Horretarako, Partaidetza Zuzendaritzak 2019-2023 Partaidetza Programa diseinatu zuen.
2024-2027 legegintzaldirako, 2024-2027 Partaidetza Programa diseinatu zen, eta Gobernu Kontseiluak onartu zuen 2024ko irailean. Programa horretan, 3 helburu estrategiko ezarri ziren (Lurraldean Ekintza Komunitarioa indartzea; Erakundeak prestatzea eta lurraldean praktika parte hartzaileak zabaltzea; Partaidetzaren kalitatean sakontzea); zeharkako 2 helburu (Trebakuntza eskaintzea, Gipuzkoako Eskola Irekiaren bidez (GEI) partaidetza-kultura eta ekintza komunitarioa sustatzeko; Komunikazioa eta dibulgazioa egitea, partaidetza-kultura eta ekintza komunitarioa sustatzeko); eta 15 jardun-ildo, herritarren partaidetzarako eta komunitate-ekintzarako ezarritako helburu bakoitzarekin lotuta.
Gobernu Onaren eta Berrikuntza Politiko-sozialaren Zuzendaritza hainbat konpromisoren buru izan da Euskadiko OGPren lehen bi planetan, eta 2025-2028 aldirako Euskadiko Gobernu Irekiaren III. Plan berriari (OGP) begira, zuzendaritza honek aktiboki hartuko du parte 3 konpromisotan.
Irabazi-asmorik gabeko erakundeak eta udalak azken urteotan aurkezten ari diren dirulaguntzen historia aztertu ondoren, haientzako finantza-laguntza indartzeko beharra ikusi zen; izan ere, pandemian izandako geldialdiaren ondoren, 2021ean nabarmen handitu zen haien parte-hartzea. 2024an eta 2025ean, gero eta proiektu gehiago aurkeztu dira, udalek eta elkarteek herritarren parte-hartzea eta ekintza komunitarioa sustatzen jarraitzeko.
2022an, garapen komunitariorako GFAren kontzeptu-esparrua definitu eta onartu zen, eta, ondorengo urteetan, GFAren beste zuzendaritza batzuekin ari da lanean, udalei zuzendutako proiektuak garatzen, ikuspegi komunitarioa erabiliz. 2024an eta 2025ean zehar, hainbat tailer egin dira udalekin ekintza komunitarioa lantzeko, eta udako ikastaroak antolatu dira komunitatea sortzeko behar diren gakoei eta

ekipamenduei buruz, bai eta Euskadi eta Estatu mailako praktika komunitarioen ezagutzari buruz ere. 2026ari begira, gizarte-ekintza bultzatzen jarraituko dugu, dirulaguntzen, prestakuntza-tailerren eta proiektu zehatzen bidez. Partaidetza prozesuetan genero ikuspegia txertatuko da, emakumeek politika publikoetan parte hartzean duten ordezkaritza historikoa gainditzeko.

Beharraren deskribapen xehatua:

2024-2027 Partaidetza Programak, komunitateen eta erakundeen kalitate demokratikoan sakontzeko helburuarekin, funtsezko bi zutabe ezartzen ditu: ekintza komunitarioa eta herritarren partaidetza, eta hori hedatzeko 5 helburu estrategiko ezartzen ditu:
1) Ekintza Komunitarioa
2) Erakundeak prestatzea
3) Partaidetzaren kalitatea
4) Trebakuntza
5) Komunikazioa
2027ko ekitaldia legegintzaldiaren amaierarekin bat datorrenez, programa horren betetze maila ebaluatuko du.

Gainera, Elkartegintza proiektu traktoreari dagokionez, zuzendaritzak Elkartegintza ekintza-plana egikaritu behar du, 2026ko ekitaldian zehaztua izan dena. Planak hiru eremutan eragitea aurreikusten du: administrazio publikoa, gizartea eta asoziazionismoa; era berean, bost dimentsiotan, ezagutza, aintzatespena, erraztasuna, sustapena eta sentsibilizazioa; horretarako, hamahiru fitxa garatu ditu, 2026ko eta 2027ko ekitaldien artean gauzatuko den plana zehazten dutenak.

Halaber, Gobernu Onari dagokionez, zuzendaritzak bere zeregina betetzeko aurrera egin behar du eta emandako pausoak egonkortu behar ditu, zehazki, Foru Aldundian eta haren sektore publikoan gobernu ona eta osotasun instituzionala sustatzeari dagokionez; departamentuak gardentasunaren arloko jardueretan koordinatzearen inguruan; Gipuzkoa Irekiaren ataria kudeatuz; laguntza materiala, teknikoa eta administratiboa emanez Foru Sektore Publikoko Etika Instituzionaleko Batzordeari eta Gardentasunaren arloko Erreklamazioen Batzordeari; eta Interes Taldeen Erregistroa kudeatuz.

Nori zuzendua:

Herritarrei, herritarren erakundeei, udalei, Foru Aldundiaren beraren zuzendaritza eta zerbitzuei eta Foru Sektore Publikoari.

Programaren estrategia.

1. Baliabideak (inputak):

Lan talde teknikoa, enpresak eta baliabide teknologikoak.

2. Garatu beharreko jarduerak/prozesuak:

- Lurraldean Ekintza Komunitarioa indartzea, Aldundiaren eta toki erakundeen erraztatzaile rola sustatuz
- Erakundeak prestatzea eta lurraldean praktika parte hartzaileak zabaltzea: kanporantz ahalik eta erlazionalenak izateko barruko antolaketa birpentsatzea eta entzunda erabakitzea eta erabakitzeko entzutea.
- Partaidetzaren kalitatean sakontzea, ondorengo printzipioetan sakonduz:
    - Unibertsaltasuna: Emakume eta gizonezkoek, berdintasun-baldintzetan parte hartzea;
    - Inklusioa: Homogeneotasuna gainditzeko ahots anitzak, libreki eta segurtasunez entzuteko mekanismoak txertatzea eta partaidetzarako sarbidea erraztea, pertsonen ezaugarri indibidual eta sozialetarako bitarteko egokiekin;
    - Gardentasuna eta etika publikoa.

3. Ondasun eta Zerbitzuak (outputak):

Partaidetza sendotzeko estrukturak (Gizarte kontseilua, Herritarren Partaidetzako Foru Batzordea, Erakunde arteko Espazioa eta Elkarteen foroa), dirulaguntzak, formakuntza, kongresuak, gidak, sareak eta partaidetza prozesuak finkatzeko aholkularitza teknikoa.

Programaren arau esparrua:

Herritarren partaidetzari buruzko 5/2018 Foru Araua, azaroaren 12koa.
4/2019 Foru Araua, martxoaren 11koa, Gobernu Onari buruzkoa, foru gobernantza publikoaren

esparruan.
Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 2/2015 Foru Araua, martxoaren 9koa.
Martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoa, Emakumeen eta gizonen berdintasun eragingarrirako.
1/2023 Legegintzako Dekretua, martxoaren 16koa, emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testu bategina onartzen duena.
Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako IV. Foru Plana 2025-2027.
- 1/2023 Legegintzako Dekretua, martxoaren 16koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta Emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testu bategina onartzen duena.
- 2/2015 Foru Araua, martxoaren 9koa, emakumeen eta gizonen berdintasunerako.
- 3/2007 Lege Organikoa, martxoaren 22koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasun Eragingarrirako.

2024-2027 KUDEAKETA PLAN ESTRATEGIKOARI LOTUTAKO DEPARTAMENTU JARDUKETA

Urteko helburua: Herritarren kultura demokratikoan eta ardura komunitarioan sakontzea.

Adierazlea	Neurri-unitatea	Helburu mota	Azken balioa	Aurtengo aurreikuspena	Urteko helburua	Agintaldiko helburua
Erakundeen arteko eremuan parte hartzen duten Udalen asebetetze-maila, eta baita erakundeena ere	Eskala 1-10	>=	8,81	8,50	8,50	8,00
Diruz lagundutako proiektuen kopurua (udalak eta elkarteak)	Kopurua	>=	120,00	100,00	120,00	75,00
Lurraldean lagundutako garapen ekimen komunitarioen zenbatekoa	Kopurua	>=	25,00	25,00	30,00	30,00

Helburuari lotutako ekintza lerroak eta ekintzak

1. Ekintza lerroa:
Udalen, elkarteen, eragileen eta herritarren formakuntzarako beharrei erantzutea eta lankidetzazko gobernantzan sakontzeko elkargunerako guneak indartzea



% 94,60



% 4,69



% 0,71

	Ordainketa kredituak	Datozen urteetako gastuak	Sarrera lotua	Hasiera data	Bukaera data	Etorkizuna eraikiz
Ekintza lerroa, guztira	**1.846.395,64**	**465.000,00**		**2027/01/01**	**2028/12/31**	
1.1 Ekintza FORU EKIMENETAKO DINANIMIZAZIOA, PARTAIDETZA ETA ERANTZUKIZUN KOMUNITARIOA SUSTATZEA	262.165,96			2027/01/01	2027/12/31	
1.2 Ekintza Udalei eta entitate txikiei aholkularitza zerbitzua.	59.287,36			2027/01/01	2027/12/31	
1.3 Ekintza Partaidetzarako Herritar Erakundeen Foru Erregistroa.	1.817,91			2027/01/01	2027/12/31	

	Ordainketa kredituak	Datozen urteetako gastuak	Sarrera lotua	Hasiera data	Bukaera data	Etorkizuna eraikiz
1.4 Ekintza Zuzendaritzako langileen kapazitazioa	78.716,48			2027/01/01	2027/12/31	
1.5 Ekintza Gobernu Onaren sustapena	51.389,56			2027/01/01	2027/12/31	
1.6 Ekintza Gipuzkoako Eskola Irekia (GEI) bultzatzea, Gipuzkoako gizartean partaidetzazko eta elkarlaneko kultura sustatzeko, balio publikoa sortzeko, haien eskubideak gaituz eta ezagutuz.	282.452,76			2027/01/01	2027/12/31	
1.7 Ekintza Herritarren Partaidetzako Foru batzordearen kudeaketa	9.089,56			2027/01/01	2027/12/31	
1.8 Ekintza 2024-2027 Herritarren Partaidetza Programan jasotako ekintza guztien jarraipena eta ebaluazioa egitea	41.039,12			2027/01/01	2027/12/31	
1.9 Ekintza Udalei eta entitate txikiei dirulaguntzak	640.385,36	300.000,00		2027/01/01	2028/12/31	
1.10 Ekintza Herritar erakundeei dirulaguntzak ematea	403.690,36	165.000,00		2027/01/01	2028/12/31	
1.11 Ekintza Programaren eragin linguistiko handiko kontratuetan edota dirulaguntzetan hizkuntza-klausula berrituak txertatu.	16.361,21			2027/01/01	2027/12/31	

Urteko helburua: Gipuzkoar gizartean ehun komunitarioa indartzea eta berritzea, elkarlana eta parte-hartzea sustatuz.

Adierazlea	Neurri-unitatea	Helburu mota	Azken balioa	Aurtengo aurreikuspena	Urteko helburua	Agintaldiko helburua
Lurraldeko elkarteak indartzera bideratutako tresnak edota espazioak	Kopurua	>=	7,00	7,00	15,00	15,00
2024-2027 Herritarren partaidetzako programaren ekintzak	Kopurua	>=	42,00	24,00	30,00	47,00
Udalek dirulaguntzetara aurkezten dituzten proiektuei buruzko datuak	Ehunekoa	>=	0,00	0,00	100,00	10,00
Elkarteek dirulaguntzetara aurkezten dituzten proiektuen buruzko datuak	Ehunekoa	>=	0,00	0,00	100,00	10,00

Helburuari lotutako ekintza lerroak eta ekintzak

1. Ekintza lerroa:

Gipuzkoar gizartea aktiboa eta dinamikoa izan dadin eragiten duten ekimen, pertsona eta taldeak babestea.



% 3,93



% 91,89



% 4,18

	Ordainketa kredituak	Datozen urteetako gastuak	Sarrera lotua	Hasiera data	Bukaera data	Etorkizuna eraikiz
Ekintza lerroa, guztira	**613.179,12**			**2027/01/01**	**2027/12/31**	
1.1 Ekintza Esperientziak sistematizatzea eta geo-lokalizazio mapa elikatzea.	54.402,80			2027/01/01	2027/12/31	
1.2 Ekintza Plataforma digitalean hobekuntzak garatzen eta ezartzen jarraitzea	97.716,48			2027/01/01	2027/12/31	
1.3 Ekintza Begirada komunitarioa, ekintza komunitarioa	48.029,12			2027/01/01	2027/12/31	✔
1.4 Ekintza Herritarren partaidetzari buruzko teoria eta praktikak komunikatu eta partekatu: topaketak, aldizkariak, eta abar	55.397,80			2027/01/01	2027/12/31	
1.5 Ekintza Herritarren partaidetzarako erakunde arteko espazioaren dinamizazioa eta bere urteko egitarauaren betetze maila	145.620,60			2027/01/01	2027/12/31	
1.6 Ekintza Herritarren partaidetzarako Gizarte Kontseiluaren dinamizazioa eta bere urteko egitarauaren betetze maila	47.064,98			2027/01/01	2027/12/31	
1.7 Ekintza Partaidetzako sareetan sartzea eta proiektuak hedatzea	45.447,80			2027/01/01	2027/12/31	
1.8 Ekintza Elkarteen Foroaren dinamizazioa eta bere urteko egitarauaren betetze maila	45.727,06			2027/01/01	2027/12/31	
1.9 Ekintza Euskararen erabilera bermatzea Zuzendaritzak egiten dituen herritarren partaidetzako ekintza eta proiektu guztietan, euskararen erabilera sustatuz, bai barruan, bai herritarrei zuzendutako ekintzetan.	25.634,36			2027/01/01	2027/12/31	

	Ordainketa kredituak	Datozen urteetako gastuak	Sarrera lotua	Hasiera data	Bukaera data	Etorkizuna eraikiz
1.10 Ekintza Parte hartzearen kalitatearen adierazleekin datu-base bat egitea, parte hartzean eragiten duten genero-adierazleak txertatuz.	35.954,56			2027/01/01	2027/12/31	
1.11 Ekintza HERRITARREN PARTAIDETZA FORU ARAUAREN ESKUBIDEREN BERRI EMATEA ETA PARTAIDETZA SUSTATZEA	12.183,56			2027/01/01	2027/12/31	

2. Ekintza lerroa:
Lurraldeko elkartegintza sendotzeko estrategia garatzea, gizarte eragileen eta elkarteen artean belaunaldien arteko politika bat landuz, belaunaldien berritzea aktibatuz eta boluntariotza sustatuz

11 HIRI ETA KOMUNITATE JASANGARRIAK % 50,00

17 HELBURUAK LORTZEKO ALIANTZA % 50,00

	Ordainketa kredituak	Datozen urteetako gastuak	Sarrera lotua	Hasiera data	Bukaera data	Etorkizuna eraikiz
Ekintza lerroa, guztira	**249.737,07**			**2027/01/01**	**2027/12/31**	
2.1 Ekintza Trakzio Proiektua: Elkartegintza sustatzeko epe luzerako estrategia	249.737,07			2027/01/01	2027/12/31	

Urteko helburua: Foru Aldundiaren jarduera izatea euskaratik eta euskaraz

Adierazlea	Neurri-unitatea	Helburu mota	Azken balioa	Aurtengo aurreikuspena	Urteko helburua	Agintaldiko helburua
Erakundeak plan estrategiko eta kudeaketa-planak kudeatzeko sistema egituratua osatu du (%)	Ehunekoa	>=	0,00	0,00	80,00	80,00
Euskarazko administrazio-atalak	Kopurua	>=	0,00	0,00	50,00	50,00

Helburuari lotutako ekintza lerroak eta ekintzak

1. Ekintza lerroa:
Gipuzkoako Foru Aldundiaren Euskararen Erabilera Plana (2023-2027) gauzatu

18 HIZKUNTZA ETA KULTUR ANITZASUNA % 100,00

	Ordainketa kredituak	Datozen urteetako gastuak	Sarrera lotua	Hasiera data	Bukaera data	Etorkizuna eraikiz
Ekintza lerroa, guztira	**9.964,17**			**2027/01/01**	**2027/12/31**	
1.1 Ekintza Kontratuak egiterakoan hizkuntza berdintasuna lortzeko klausulen gida aplikatzea, kontratazio publikoa modu elektronikoan kudeatzeko aplikazio berriaren baitan	9.964,17			2027/01/01	2027/12/31	

DEPARTAMENTUAREN JARDUKETA OPERATIBOA

Urteko helburua: Partaidetzaren eta ekintza komunitarioaren kalitatean sakondu

Adierazlea	Neurri-unitatea	Helburu mota	Azken balioa	Aurtengo aurreikuspena	Urteko helburua	Agintaldiko helburua
Ekipamendu komunitarioen proiektu zehatzak	Eskala 1-10	>=	0,00	3,00	3,00	5,00
Erakundeak prestatu	Kopurua	>=	59,00	59,00	59,00	59,00
Kapazitazioa	Kopurua	>=	25,00	20,00	22,00	25,00
Komunikazioa	Bai/Ez	=	Ez	Ez	Ez	Ez

Helburuari lotutako ekintza lerroak eta ekintzak

1. Ekintza lerroa:
Lurraldeko kalitate demokratikoa indartzeko lan egitea



% 100,00

	Ordainketa kredituak	Datozen urteetako gastuak	Sarrera lotua	Hasiera data	Bukaera data	Etorkizuna eraikiz
Ekintza lerroa, guztira	**9.500,00**			**2027/01/01**	**2027/12/31**	
1.1 Ekintza 2024_2027_Herritarren partaidetza programaren ebaluazioa	9.500,00			2027/01/01	2027/12/31	

Urteko helburua: Trebakuntza eskaintzea, Gipuzkoako Eskola Irekiaren bidez (GEI) partaidetza-kultura eta ekintza komunitarioa sustatzeko

Adierazlea	Neurri-unitatea	Helburu mota	Azken balioa	Aurtengo aurreikuspena	Urteko helburua	Agintaldiko helburua
Prestakuntza-ekintzen kopurua	Kopurua	>=	26,00	25,00	25,00	100,00

Helburuari lotutako ekintza lerroak eta ekintzak

1. Ekintza lerroa:
Genero-ikuspegia txertatzea prestakuntza-programetan - GEI

16 BAKEA, JUSTIZIA ETA INSTITUZIO SENDOAK % 100,00

	Ordainketa kredituak	Datozen urteetako gastuak	Sarrera lotua	Hasiera data	Bukaera data	Etorkizuna eraikiz
Ekintza lerroa, guztira	**11.875,00**			**2027/01/01**	**2027/12/31**	
1.1 Ekintza Prestakuntza-ikastaroak antolatzea, herritarren parte hartzea eta ekintza komunitarioen prozesuak sustatzen laguntzako eta horien kalitatea hobetzeko; hori guztia, genero-ikuspegia txertatuz.	11.875,00			2027/01/01	2027/12/31	

GENERO BERDINTASUNA

Programaren genero garrantzia: Handia

Beharraren deskribapen xehatua:

INFORMAZIO-GABEZIAK
Datu gutxi daude herritarren parte-hartzearen ezaugarriak ezagutzeko eta berdintasun-aginduen betetze-maila ebaluatzeko. Diruz lagundutako prozesuetan emakumeek eta gizonek duten parte-hartzeari buruzko informazioa badago ere, orain arte ezin izan da ustiatu. Udaleko prozesu parte-hartzaileen datu-base berriari esker, lurraldeko datu agregatuak eskuratu eta argitaratu ahal izango dira. Hala ere, oraindik ez da ezagutzen prozesu horiek genero-desberdintasunen murrizketan duten benetako eragina.
PARTE HARTZEKO ORGANOAK ETA ESPAZIOAK
Zuzendaritza honi lotutako organo gehienetan emakumeen parte-hartzea da nagusi: Erakunde arteko Espazioan (% 95), Foro Teknikoa (% 69), Udalerri Txikien Taldea (% 80), Gizarte Kontseilua (% 62), Foru Batzordea (% 60), Elkarteen Foroa (% 78) eta Etika Batzordea (% 67). Hala ere, Parte Hartzeko Herritarren Entitateen Foru Erregistroan inskribatutako entitateen lehendakaritza gehienak gizonezkoak dira (% 55).
Zuzendaritza honek zuzenean erabakitzeko ahalmenik ez duen Aldundiko beste gune batzuetan, interes-taldeetan esaterako, gizonen ordezkaritza % 60koa da. Oro har, datuek iradokitzen dute gizonen presentzia handitu egiten dela eragiteko edo erabakitzeko gaitasun handiagoa duten eremuetan.
PARTAIDETZARAKO ETA GOBERNU ONERAKO INTERESA
Gipuzkoako Eskola Irekiaren prestakuntzetan, partaide eta dinamizatze gehienak emakumeak izan dira (% 66 eta % 75 artean). Horren arrazoia izan liteke, neurri batean, enplegu publikoaren feminizazioa eta harreman- eta komunitate-funtzioak dituzten eremu horien ohiko asoziazioa. Hala ere, interes-taldeetan gizonak dira nagusi (% 60), ziurrenik erabakiak hartzean eragiteko duten gaitasunagatik.
BEREIZKETA BERTIKALA
Elkarte-oinarriaren feminizazio handia ikusi da, eta ordezkaritza-postuetan behera egin du. Foru Erregistroan, emakumeak lehendakaritzen % 44,8 dira, eta gizonak, berriz, % 55,2. Antzeko datuak ikusten dira EAEko elkarte-ehunean. Gobernu Onaren eta Berrikuntza Politiko-Sozialaren Zuzendaritzan, lantalde teknikoa gehienbat emakumeek osatzen dute (% 71), zerbitzu burua emakumea da eta zuzendaritza gizon batek betetzen du. Alderdi positibo gisa, foru partaidetza eta ordezkaritza organoek, oro har, emakumeen eta gizonen presentzia orekatua dute, eta hori, gainera, arautegi erregulatzaileak eskatzen du.
PARTE HARTZEKO MODUAN DAUDEN ALDEAK
Gune batzuetan emakume gehiagok parte hartzen duten arren, gizonek esku-hartze luzeagoak egin ohi dituzte. Parte-hartzearen benetako eraginean desberdintasunak saihesteko, esku-hartzeak orekatzera bideratutako dinamizazio-neurriak txertatzen dira. Espazio horien dinamizazioa erabat feminizatuta dago.
DIRULAGUNTZETAKO BERDINTASUN-NEURRIAK
Berdintasun-irizpideek 100 puntutik 6 adierazten dituzte udalentzako dirulaguntzetan, eta 9 elkarteentzako dirulaguntzetan. Lortutako batez besteko puntuazioek aurrerapenak erakusten dituzte, baina oraindik ere apalak dira. Gaur egun, ez dago informaziorik neurri horiek benetako partaidetza-berdintasunean duten eragina neurtzeko. Gainera, udaletan diruz lagundutako prozesuen % 23k zuzenean jorratzen dituzte berdintasunarekin lotutako gaiak.
MUGIMENDU FEMINISTAREN PRESENTZIA
Parte Hartzeko Herritarren Erakundeen Foru Erregistroan inskribatutako 99 entitateetatik, bakar batek egiten du lan esplizituki genero-berdintasunaren alde. Horrek agerian uzten du mugimendu feministaren presentzia instituzional eskasa ekosistema parte-hartzailearen barruan.
JENDAURREAN JARTZEKO ESKAERAK
Eskaera gehienak gizonek egiten dituzte. Arrakala hori eremu profesionaletan edo ordezkaritza-eremuetan presentzia handiagoa izatearekin erlaziona daiteke; emakumeen parte-hartze txikiagoa, berriz, denbora-mugekin edo legitimazio sensazio txikiagoarekin lotuta egon daiteke.
KOMUNIKAZIO PUBLIKOA
Genero ikuspegiaren inguruko prestakuntza izanik. Horren ondorioz, arreta berezia jartzen da komunikatzeko erabiltzen diren irudietan eta hizkuntzan.

Berdintasun-agindu nagusiak:

Politika eta ekintza guztietan genero-ikuspegia txertatzea, horietan guztietan ezberdintasunak ezabatzeko eta emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatzeko helburu orokorra ezartzeko. Neurri

espezifikoak eta aldi baterakoak hartzea, bizitzaren eremu guztietan sexuaren zioz dauden egitatezko desberdintasunak ezabatzeko edo murrizteko. Emakumeen eta gizonen arteko desberdintasuna oinarritzen den sexuaren araberako rol sozialak eta estereotipoak desagerraraztea sustatzea. Estatistiketan, inkestetan eta datu-bilketan sexuaren aldagaia sistematikoki txertatzea eta genero-adierazleak ezartzea. Erabakiak hartzeko eremu guztietan eta, bereziki, zuzendaritza-organoetan eta kide anitzeko organoetan, emakumeen eta gizonen presentzia orekatua lortzeko neurri egokiak hartzea. Lanbide, enpresa, gizarte-ekonomia, sindikatu, politika, kultura edo bestelako elkarte eta erakundeen zuzendaritza-organoetan emakumeen eta gizonen presentzia orekatua izan dadin sustatzea. Herritarrek parte hartzeko prozesu, une edo espazio orok eztabaidatu, kontsultatu edo erabaki beharreko eduki publikoetan genero-ikuspegia txertatzen duela bermatzea.
Emakumeen eta gizonen parte-hartze orekatua bermatzea, berdintasun-baldintzetan, modu erreal eta eraginkorrean, parte hartzeko eskubidea gauzatzeko tresna eta prozedura espezifikoetan. Dirulaguntzak: bereziki, genero-berdintasuna sustatzea hartuko da kontuan, eta beren jarduerak genero-ikuspegitik planifikatzen dituzten eta berdintasuna sustatzeko neurriak garatzen dituzten erakundeei eman ahal izango zaie lehentasuna. Genero-ikuspegia txertatzea jarduera Gipuzkoako Lurralde Historikoan garatzen duten herritarrak eta herritar-erakundeak prestatzeko programan. Gobernu onaren printzipioak: Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna.

Berdintasun-helburuak

Helburuak:

- HO.4238: Trebakuntza eskaintzea, Gipuzkoako Eskola Irekiaren bidez (GEI) partaidetza-kultura eta ekintza komunitarioa sustatzeko

Ekintza lerroak:

Berdintasuna sustatzeko programaren ekintzak

Programaren gainerako ekintzetan, genero-ikuspegia kontuan hartzen da, honako jarduera hauen bidez:

- Sexua zeharkako aldagai gisa eta/edo genero-adierazle gisa
- Berdintasun-irizpideak kontratu, diru-laguntza, laguntza eta/edo hitzarmenetan
- Dei espezifikoa egitea emakume feministen elkarteei, Gunearen bidez, programak elkarteei eskaintzen dien guztian.
-

Prestakuntza-ikastaroak antolatzea, herritarrek parte hartzeko eta gizarte-ekintzako prozesuetan genero-ikuspegia txertatzeko.

Genero-ikuspegiaren integrazio-indizea:	6,50	puntu
Kuantifikazioa:	0,00	(% 0,00)
Ordainketa kredituak:	0,00	(% 0,00)
Datozen urteetako gastuak:	0,00	(% 0,00)

HIZKUNTZA BERDINTASUNEKO PLANA

Beharraren deskribapen xehatua:

Gobernu Ona eta Herritarren Partaidetzarako Programan jasotako ekintzak garatzeko egiten diren ekintza guztietan eta abian jartzen diren herritarren parte-hartze eta ekintza komunitarioen prozesuetan euskararen erabilera sustatzea eta bermatzea. Aldi berean, programaren eragin linguistiko handiko kontratuetan (kontratazio publikoa modu elektronikoan kudeatzeko aplikazio berriaren baitan) edota dirulaguntzetan hizkuntza-klausula berrituak txertatuko dira.

Kategoria	Nola
6.- Hizkuntza-klausulak	6.- Hizkuntza-klausulak

PARTAIDETZA PLANA

Beharraren deskribapen xehatua:

Legegintzaldi honetan lehentasun bezala jasotzen da herritarren partaidetzaren bidez egungo politikaren eta administrazio publikoen izaera eta kultura aldatzen joatea eta herritarren ahotsa politika publikoetan txertatzea. Era berean, komunitate demokratikoen eraikuntzan ekarpena egin nahi du ekintza komunitarioaren sustapenaren bidez.
GFAk lankidetzan oinarrituko du bere jarduna, eta 2024-2027 programaren bidez, herritarren parte-hartze prozesuak eta ekintza komunitarioa sustatzea helburu duten proiektuak edo ekimenak bultzatuko ditu.

Kuantifikazioa:	992.783,91	(% 30,97)
Ordainketa kredituak:	992.783,91	(% 36,22)
Datozen urteetako gastuak:	0,00	(% 0,00)

Kategoria	Kategoria %	Nola
10. ORGANOAK	(% 15,38)	40. Herritarren Partaidetzako Gizarte Kontseilua
		44. Herritarren Partaidetzarako Erakunde arteko Espazioa
11. PARTAIDETZA ESPARRUAK	(% 15,38)	46. Elkarteen foroa
		47. GFAko departamentuekin lan egiteko lantalde teknikoa
4.AHOLKULARITZA	(% 23,08)	11. Barne erakunde aholkularitza
		12. Udalentzako eta erakunde aholkularitza
6. PRESTAKUNTZA ETA TREBAKUNTZA	(% 7,69)	15. Herritartasun Irekiaren Gipuzkoako Eskola
7. EZAGUTZA, HEDAPENA ETA TRANSFERENTZIA	(% 30,77)	21. Txostenak eta sistematizazioa
		22. Gidak
		23. Newsletterra
		26. Ekitaldiak
		27. OGP Euskadin parte hartu
		28. Sare akademiko eta profesionalak
		29. Herritar Erakundeen Erregistroa
9. BERRIKUNTZA	(% 7,69)	33. Plataforma kolaboratiboa

GJH

Beharraren deskribapen xehatua:

Gipuzkoako Foru Aldundiak 2024-2027 legegintzaldirako Plan Estrategikoan zeharkako helburu gisa ezarri du garapen iraunkorra eta bidezkoa (GJH) sustatuko duten balioak, ohiturak eta gaitasunak bultzatzeko ekimenak garatzea. 2026ean 11. helburuan : 2030. urterako, Gipuzkoako giza kokalekuen hirigintza inklusibo eta jasangarria eta plangintza eta kudeaketa parte-hartzailerako, integraturako eta jasangarrirako gaitasuna handitzea bultzatuko da. 16. helburua lantzen jarraituko da, baita 5. helburua ere, generoen arteko berdintasuna lortzeko eta emakume eta neska guztiak ahalduntzeko. 17. helburuaren barruan : Udalen, elkarteen, eragileen eta herritarren formakuntzarako beharrei erantzutea eta lankidetzazko gobernantzan sakontzeko elkargunerako guneak indartzea jorratuko da. Azkenik 18. helburuen barruan Gipuzkoar gizartea aktiboa eta dinamikoa izan dadin eragiten duten ekimen, pertsona eta taldeak babestea bultzatuko da.

Kuantifikazioa: 3.205.651,00 (% 100,00)

Programari lotutako GJH zerrenda

GJH, Helburu eta Ekintza lerroak		Ordainketa kredituak	Datozen urteetako gastuak
5 GENERO BERDINTASUNA	5-Genero berdintasuna Genero-berdintasuna lortzea eta emakume nahiz neskato guztiak ahalduntzea.	**24.069,06**	
Helburua	5.5 - Emakumeen parte-hartze osoa eta eraginkorra ziurtatzea, baita lidergoko aukera-berdintasuna ere, bizitza politikoko, ekonomikoko eta publikoko maila erabakitzaile guztietan	24.069,06	
	Ekintza lerroak		
	Gipuzkoar gizartea aktiboa eta dinamikoa izan dadin eragiten duten ekimen, pertsona eta taldeak babestea.	24.069,06	
11 HIRI ETA KOMUNITATE JASANGARRIAK	11-Hiri eta komunitate jasangarriak Hiriak eta giza kokaguneak inklusiboak, seguruak, erresilienteak eta jasangarriak izatea lortzea.	**124.868,54**	
Helburua	11.3 - 2030. urterako, Gipuzkoako giza kokalekuen hirigintza inklusibo eta jasangarria eta plangintza eta kudeaketa parte-hartzailerako, integraturako eta jasangarrirako gaitasuna handitzea.	124.868,54	
	Ekintza lerroak		
	Lurraldeko elkartegintza sendotzeko estrategia garatzea, gizarte eragileen eta elkarteen artean belaunaldien arteko politika bat landuz, belaunaldien berritzea aktibatuz eta boluntariotza sustatuz	124.868,54	
16 BAKEA, JUSTIZIA ETA INSTITUZIO SENDOAK	16-Bakea, justitzia eta instituzio sendoak Garapen jasangarrirako gizarte baketsuak eta inklusiboak sustatzea, guztioi justiziarako sarbidea erraztea, eta erakunde eraginkorrak eta inklusiboak sortzea maila guztietan.	**2.306.524,97**	**465.000,00**
Helburua	16.06 - Kontuak emango dituzten erakunde eraginkorrak eta gardenak sortzea maila guztietan	41.039,12	
	Ekintza lerroak		

GJH, Helburu eta Ekintza lerroak		Ordainketa kredituak	Datozen urteetako gastuak
	Udalen, elkarteen, eragileen eta herritarren formakuntzarako beharrei erantzutea eta lankidetzazko gobernantzan sakontzeko elkargunerako guneak indartzea	41.039,12	
Helburua	16.07 - Beharrei erantzungo dieten erabaki inklusiboak, parte-hartzaileak eta esanguratsuak hartuko direla bermatzea maila guztietan	2.265.485,85	465.000,00
	Ekintza lerroak		
	Udalen, elkarteen, eragileen eta herritarren formakuntzarako beharrei erantzutea eta lankidetzazko gobernantzan sakontzeko elkargunerako guneak indartzea	1.680.635,15	465.000,00
	Gipuzkoar gizartea aktiboa eta dinamikoa izan dadin eragiten duten ekimen, pertsona eta taldeak babestea.	563.475,70	
	Lurraldeko kalitate demokratikoa indartzeko lan egitea	9.500,00	
	Genero-ikuspegia txertatzea prestakuntza-prometan - GEI	11.875,00	
	17-Helburuak lortzeko aliantza Ezarpen-baliabideak sendotzea eta Garapen Jasangarrirako Munduko Ituna biziberritzea.	**233.228,70**	
Helburua	17.17 - Arlo publikoan, publiko-pribatuan eta gizarte zibilean aliantza eraginkorrak sor daitezen sustatzea, aliantzen baliabideak lortzeko estrategiak eta esperientzia baliatuz.	233.228,70	
	Ekintza lerroak		
	Udalen, elkarteen, eragileen eta herritarren formakuntzarako beharrei erantzutea eta lankidetzazko gobernantzan sakontzeko elkargunerako guneak indartzea	108.360,16	
	Lurraldeko elkartegintza sendotzeko estrategia garatzea, gizarte eragileen eta elkarteen artean belaunaldien arteko politika bat landuz, belaunaldien berritzea aktibatuz eta boluntariotza sustatuz	124.868,54	
	18-kultura eta hizkuntza aniztasuna Kultura eta hizkuntza aniztasuna	**51.959,74**	
Helburua	- Minorizazio-egoeran dauden hizkuntzak dituzten komunitateak ahalduntzea eta ikusaraztea, identitate desberdinak indartzeko.	9.964,17	
	Ekintza lerroak		
	Gipuzkoako Foru Aldundiaren Euskararen Erabilera Plana (2023-2027) gauzatu	9.964,17	
Helburua	18.1 - Hizkuntza eta kultura guztien presentzia eta errekonozimendua bermatzea, garapen pertsonal eta sozialerako ezinbesteko faktore gisa	41.995,57	
	Ekintza lerroak		
	Udalen, elkarteen, eragileen eta herritarren formakuntzarako beharrei erantzutea eta lankidetzazko gobernantzan sakontzeko elkargunerako guneak indartzea	16.361,21	
	Gipuzkoar gizartea aktiboa eta dinamikoa izan dadin eragiten duten ekimen, pertsona eta taldeak babestea.	25.634,36	

Guztira	**2.740.651,00**	**465.000,00**

Programaren aurrekontuaren laburpena / Resumen del Presupuesto del Programa

Gastuen kapituluak / Capítulos gastos	2026	2027	Datozen urteetako gastuak/Gastos Futuros				
			2028	2029	2030	2031 eta hurrengoak/ 2031 y siguientes	Guztira / Total
1. LANGILERIA GASTUAK GASTOS DE PERSONAL	873.223,00	908.956,00					
2. ONDASUN ETA ZERBITZUEN GASTU ARRUNTAK GASTOS CORRIENTES EN BIENES Y SERVICIOS	891.000,00	835.694,00					
3. FINANTZA GASTUAK GASTOS FINANCIEROS							
4. TRANSFERENTZIA ARRUNTAK TRANSFERENCIAS CORRIENTES	987.662,00	995.001,00	465.000,00				465.000,00
5. KONTINGENTZIETARAKO ETA BESTE EZUSTEKO BATZUETARAKO FUNTSA FONDO DE CONTINGENCIA Y OTROS IMPREVISTOS							
Eragiketa arruntak, guztira Total operaciones corrientes	**2.751.885,00**	**2.739.651,00**	**465.000,00**				**465.000,00**
6. INBERTSIO ERREALAK INVERSIONES REALES		1.000,00					
7. KAPITAL TRANSFERENTZIAK TRANSFERENCIAS DE CAPITAL							
Kapitaleko eragiketak, guztira Total operaciones de capital		**1.000,00**					
8. AKTIBO FINANTZARIOAK ACTIVOS FINANCIEROS							
9. PASIBO FINANTZARIOAK PASIVOS FINANCIEROS							
Finantza eragiketak, guztira Total operaciones financieras							
Guztira / Total	**2.751.885,00**	**2.740.651,00**	**465.000,00**				**465.000,00**

Planen zenbateko osoa, kapituluka / Total planes/capitulos	Ordainketa kredituak / Créditos de pago		Datozen urteetako gastuak / Gastos futuros		Guztira / Total	
	Estrategikoa / Estratégico	Operatiboa / Operativo	Estrategikoa / Estratégico	Operatiboa / Operativo	Estrategikoa / Estratégico	Operatiboa / Operativo
1. LANGILERIA GASTUAK GASTOS DE PERSONAL	908.956,00				908.956,00	
2. ONDASUN ETA ZERBITZUEN GASTU ARRUNTAK GASTOS CORRIENTES EN BIENES Y SERVICIOS	814.319,00	21.375,00			814.319,00	21.375,00
3. FINANTZA GASTUAK GASTOS FINANCIEROS						
4. TRANSFERENTZIA ARRUNTAK TRANSFERENCIAS CORRIENTES	995.001,00		465.000,00		1.460.001,00	
5. KONTINGENTZIETARAKO ETA BESTE EZUSTEKO BATZUETARAKO FUNTSA FONDO DE CONTINGENCIA Y OTROS IMPREVISTOS						
Eragiketa arruntak, guztira Total operaciones corrientes	**2.718.276,00**	**21.375,00**	**465.000,00**		**3.183.276,00**	**21.375,00**
6. INBERTSIO ERREALAK INVERSIONES REALES	1.000,00				1.000,00	
7. KAPITAL TRANSFERENTZIAK TRANSFERENCIAS DE CAPITAL						
Kapitaleko eragiketak, guztira Total operaciones de capital	**1.000,00**				**1.000,00**	
8. AKTIBO FINANTZARIOAK ACTIVOS FINANCIEROS						
9. PASIBO FINANTZARIOAK PASIVOS FINANCIEROS						
Finantza eragiketak, guztira Total operaciones financieras						
Guztira / Total	**2.719.276,00**	**21.375,00**	**465.000,00**		**3.184.276,00**	**21.375,00**

Sarreren kapituluak / Capítulos de ingresos	2027	Gastuari lotutakoak / Afectados a gasto
1. ZUZENEKO ZERGAKIMPUESTOS DIRECTOS		
2. ZEHARKAKO ZERGAKIMPUESTOS INDIRECTOS		
3. TASAK ETA BESTELAKO SARRERAKTASAS Y OTROS INGRESOS	2.221,00	
4. TRANSFERENTZIA ARRUNTAKTRANSFERENCIAS CORRIENTES		
5. ONDARE SARRERAKINGRESOS PATRIMONIALES		
Eragiketa arruntak, guztira / Total operaciones corrientes	**2.221,00**	
6. INBERTSIO ERREALAK BESTERENTZEAENAJENACION DE INVERSIONES REALES		
7. KAPITAL TRANSFERENTZIAKTRANSFERENCIAS DE CAPITAL		
Kapitaleko eragiketak, guztira / Total operaciones de capital		
8. AKTIKO FINANTZARIOAKACTIVOS FINANCIEROS		
9. PASIBO FINANTZARIOAKPASIVOS FINANCIEROS		
Finantza eragiketak, guztira / Total operaciones financieras		
Guztira / Total	**2.221,00**	